

- 90. urteurrena -

# Opari sinfonikoa

Azaroaren 19 ilunabarrean Donostiako Victoria Eugenia bildutako ARGIAzaleek, agintari politikoek eta musika-maitaleek kontzertu eder baten oparia jaso zuten. Garai, kontzeptu eta kolore oso ezberdineko musikak entzun ziren ARGIAren 90. urteurrenaren aitzakian josiak, musika hutsak berez dakarren plazerari bestelako sentsazio eta sentimenduak gehitu zizkietenak.

Pello Zubiria

Argazkia: Dani Blanco

EUSKADIKO ORKESTRAREN kontzertu bereziak Iker Sanchez zuzendari irundar gaztea eduki zuen ardatz. Oso entsaio gutxiko formula onartuz, arriskutan sartu zen, eta haietatik maila handia erakutsiz atera. Kontzertua hasi zen Jose Olaizola Gabarain (1883-1969) hernaniarrak *Sorgiñeta* baleterako idatzi Kontrapasarekin. Jon Maya dantzari oso ezaguna oholtzan, metro koadro urriko tartean ari, Jagoba Astiazaran musikari gaztea txistuan eta orkestra gibeletik: ongi-etorri elegantea.

Juan Crisostomo de Arriagaren (1806-1826) Obertura op 1-ekin hasi zen lehen zatia. Mozart kutsuko pasarte fina. Ondoren, gure lurak eman duen konposatzaile munduan ezagunena, Maurice Ravel (1875-1937): honen *Le Tombeau de Couperin*, XVIII. mendeko Couperin frantses barrokoaren omenezko kontzertua, Lehen Mundu Gerran Ravelek galdu zituen lagun banari eskainitako zatiz osatua da eta Ravelek justu Zeruko ARGIA plazaratu zen urtean aurkeztu zuen. Pianoarentzako sortu sei piezetatik orkestrarentzako egokitutako lauak jo ziren. Pasarte koloretsuak, iradokizunez beteak, plastikotasun handikoak, exekutitzen konplikazio tekniko askokoak, entzulearentza-

ko lehenbiziko aldi bereganatzen ez errazak. Entzule adituena ados zetozen Iker Sanchezek txinpartak atera zizkiola orkestrari Ravelekin.

Ondoren, Jesus Aranbarriren (1902-1960) *Zortzi euskal kanta* kolekzioarekin taularatu zen Miren Urbietaren soprano gaztea. Garairik zailetan Euskal Herrian sinfonismoaren habeari zutik eutsi izanaren fama duen Aranbarririk zortzi herri kanta landu zituen zortzi bitxi oso diferente moduan. Urbietak ariketa horietan agerian utzi zituen kanturako dituen dohainak, ahots eta kantakera aldetik bezala dramatizazioarenetik. Berak batetik eta orkestrak bestetik Sanchezen ardurapean lana fin egin zuten Aranbarririk bien luzimendurako prestatutako korapiloak eskatzeko.

Zortzi kanten giro esperimentuzalearen ostean, bederatzigarrena Aita Donostiaren *Oinazez* ezaguna, *Nik baditut bortietan* herrikoia- ren gainean sortua. Giro ilunekoa bezainbat entzuten erraza, Aita Donostiaren pieza funebrean daraman drama ederki mamitu zuten bakarlariak eta musikariek.

Kontzertuaren bigarren zatiaren sarrera orkestrak eta Jose Inazio Ansorenak Isidro



Ansorenaren (1892-1975) *Birigarroa*ekin eman zuten. Tomas Aragüesen moldakuntza distiraz betean, tresna sinfonikoak eta hiru zuloko txistu zaharra elkarlanean eta lehian. Txistularia orkestra atoian daramala batzuetan eta honek altzoan kulunkatua bestetan, batak birtuosismoa erakutsi eta besteak solemnitaterik borobildu. Berez *Birigarroa* entzule epelena enamoratzen duen pieza da, eta Aragüesen moldakuntzek himno bihurtu dute.

Hurrengo jautzia, Mikel Laboak JosAnton Artzeren hitzekin sortu *Txoria txori*, Carlos Puig-en moldakuntzekin, oraingoan Pier Paul Berzaitzek eta Miren Urbietak kantatua. Gaueko ukitu nostalgikoetako bat. Eta bukatzeko, Pierra Bordazaharre "Etxahun"en *Goizian argia hastian*, Mañolo Espeletten moldaketekin, Berzaitz eta Urbietarekin batera ARGIAKO langileek kantatua... Detalle heterodoxoa, salako entzuleria goratik kantan jarri zuena.

Bukatzeko propina, Nemesio Etxanizen letrekin Jose Inazio Ansorenak idatzitako *Zapi zuriari* koplak aldatu eta *Beti ARGIA* abestu zuten, orkestrak, kantariak, langileak, salak, Aragüesek paratutako moldakuntza luxuzkoarekin.

Kontzertura musikaren plazer hutsaren bila hurbilduak nabarmenduko du orkestra dotore aritu zela, Ravelen pasarteetan haize taldea izugarri, soprano gazteak kolore eta matizazio askoren erakustaldia egin zuela, zuzendariak ambizioa, kalitatea eta orkestraren kontrola erakutsi zituela, eta txistulariak ezagutzen diogun maisutasuna. Kontzertuetara joateko usadiorik gabeko euskaltzalea, berriz, luxuzko musikaldi baten lekuko izan zen. Opari gisa, euskal prentsa biziaren, astekari zorrotz, gorri, gozo eta argiaren 90. urteurrenean, hiru ereserki galant kantatu ahal izan zituen norekin eta Euskadiko Orkestra sinfonikoarekin. n



# Xabier eta Karajito

10€



**Xabier eta Karajito, Baobab handia**

Xabierrek amets egin du, eta amets horretan Baobab handi bat aurkitu du. Lagun berriak ezagutu eta abentura bat izango du haiekin. Karajito ere salatuko da Xabierrri bihurtzeriak egiten.

10€



**Xabier eta Karajito, Itsasoko abentura**

Xabier kostaldeko herrixka batera joan da, osabak bere txalupan arrantzatzeri gonbidatu duelako. Karajito azalduko zaie bat-batean, beti bezala, bazterrak nahastera. Baina hori bakarrik ez; konturatuko dira pertsona askoren jokabidea ez dela oso egokia ekologiarri dagokionez.

10€



**Xabier eta Karajito, Izarren bila**

Asko ikas dezakegu adineko pertsonengandik. Horregatik murgilduko da Xabier astronomiaren mudi liluragarrian, eta bere irudimenari ateak zabalduko dizkio. Hor izango du bananduezineko bere lagun Karajito ere.

Eskaintza berezia **argia**ko harpidedunentzat



30€

+



kamixeta opari!





**ESKAERAK**  
 ☎ 943 37 15 45  
[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)